

Amaia Ezpeldoi hil dugu



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

“Intziri handi gaiñalat / herrekatik zen elkhitzen / ezpeldoieta dütüğü / ützi-rik ürrüntzütützen”, idatzi zuen Junes Casenave-Harigilek *Santa Grazi* pastorean. Pirinioetako ezpeldoiak bere onenean ezagutu ditu bizi duen ia mendeen idazle zuberotarrak. Apaizten ari zela Palestinan ezagutu zituen bertako jendearen sarraskien tankerakoa bizi dute egun bere herriko ezpeldoi, ezpeldi, ezpeleta eta ezpelategiek. Etorkizuneko zuberotarrek ezagutuko ote dute egun arterako ezpeldoen tankerarik? Nahikoa lan.

Ezpela (*Buxus sempervirens*) ugaria da Euskal Herri hezeko mendi natural samarretan. Zuhaxka sendo, gogor, trinko, egur sendo eta zur zurrunkoa da. Zaildutakoa. Urte batzuk badira indarrean erasotzen duen ondoko bat azaldu zela: *Cylindrocladium buxicola*. Kanpotik kutsatutako landareak ekarri eta etxekalte. Gure ustez menderaezina zen landarea, gotorretan gotorra, hiltzen du, zerk eta ondoko ziztrin batek.

Hori gutxitxo, nonbait, eta goitik behera hosto eta azal, landarearen guritasun guztiak hozkadaka jaten dituen har bat ekarri dugu: *Cydalisma perspectalis*. Gure merkatarari senak Asiatik ekarri zuen Alemaniara duela hamarkadaren bat eta urte gutxian Europa osoa kolonizatu du. Erabat soiltzen ditu ezpelak. Lehengo batean Bortzirietan barna nenbilela, negargura sortzen zuen garai bateko pendiz ezpeltsu distiratsuak gorri-gorri eginda ikusteak.

Gure erosle aseezin zaina tarteko, laster Amaia Ezpeldoi zebagaitza ere hilko dugu. ■

Ezpela (Buxus sempervirens) ugaria da Euskal Herri hezeko mendi natural samarretan.



MSF-CC BY

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. 2015ean intxaurrak jarri nituen loreontzi batean, hondarra-ekin, eta orain zuhaitz txikia dago, hosto eta guzti, polita. Noiz atera behar da loreontzitik lurrean jartzeko? Eta nola sartu behar da lurrean, hondar da guzti?

Ramon Etxeberria Ihartza (Hernani)



Kaixo Ramon. Intxaurrondoak (*Juglans regia*) hostajea galduko du neguan. Soiltzen den sasoi hori baliatu behar da toki berrian jartzeko. Egokiena abendua da. Zuloa prestatu eta izotzik egiteko arriskurik ez dagoen egunetan landatu. Izotza harrotutako

lurrean sustraietaraino sartuko litzateke... Nahi baduzu hondar eta guzti jarri. Lurrean orain dagoen maila berean sartu, ez sakonago ez harroago.

Landatzeko tokia ondo aukeratu. Intxaurrondoari lur harroa eta busti ahala azkar lehortzen dena gustatzen zaio. Lur buztintsu eta motelak ez ditu maite. Bestetik, hazten denean inguruan izango dituen bizilagunak non dauden ere kontuan izan; tarte puska bat eman. Intxaurrondo handi egingen da, handi-handia.